

Xabier Mendiguren Elizegi

IDAZLEA

Geuk “utzitako” tokia?

Jakin aldizkariaren azken alerako urtearen errebaso bat eskatu ziguten hainbat laguni, kulturaren arloan nabarmenak iruditu zaizkigun gertakariak azpimarratuz. Ez dut han esandakorik hona ekarriko, baina bai kasko barnean kilika gertatu zitzaidan kontu bat; azkura ematen duenak hatza nahi.

Literaturaren saltsan badira urtetik urterako aldaketaxoak, inongo joerari ez baizik zoriari zor zaizkionak, horrela esan baliteke; urte batean poesia-liburu bikainak atera litezke, baina zentzugabea litzateke hor bilakaera jakinik topatu nahi izatea, hurrengo urtea agorra eta hutsala gerta bailiteke alor berean. Aurten, adibidez, saiakera nabarmendu da beste generoen gainetik, baina goiz da oraindik mugimendu sakonik antzemateko.

Aldiz, esan liteke eta esan egiten dut, azken urteetako gertakari esanguratsuena, ikuspuntu soziologiko batetik, emakume idazleen plazaratzea izan dela. Bai kopuruz mordoxka azaldu delako denbora gutxian, bai kalitatez lan bikainak kaleratzen ari direlako. “Emakume idazle” kategoria ez dute maite, arrazoiz, emakume *eta* idazle diren hauetako gehienek, baina haren falta urtetan eta mendetan salatu eta deitoratu denez gero, barkagarri izan bedi izendapen hori erabiltzea. Oraintsu arte nolabaiteko



DANI BLANCO

kuota bete beharra aldarrikatu da han eta hemen (ohartu gabe agian kuota hori ezartzeak emakume idazle onen lanaren gutxiespena ekarriko zuela gerora); gaur, berriz, nik uste inongo kuotarik erabili gabe harro erakusteko moduko obra ari direla osatzen.

Ez zen hori buruan jiraka neukan kezka baina. Eman dezagun euskal literaturaren mundua feminizatu egiten dela. Baita edizioarena ere. Inguruko kulturetan neurri batean

gertatu den prozesua da hori, eta ez litzateke harriztekoa gurean ere indartzea. Bejondeigula! Bagenuen premia. Hala ere, ez dakit guztiz zuzena litzatekeen joera berri hori emakumeak gizartean omen duen pisu gero eta handiagoaren adierazgarritzat hartzea.

Alegia, kazetari emakumezko batek komentatu zidan aurrekoan, beren lanbideak prestigioa galtzarekin batera aldegin dutela gizonezkoek beste arlo batzuetara, eta beren tokia emakumei “utzi”. Informatika, ingeniari-tza, garrantzi estrategikoa duten sektoreetara begiratu eta erabateko androkrazia ikusten dut, kardinalen konklabe bat balitz bezala. Literaturak, berriz, argi dago ez duela zerikusirik negozioen muinarekin eta mende berriaren martxan itzala galduz doala ere esango nuke.

Horregatik utzi ote diegu “geurea” zen sozietate pribatu honetako sukalderraino sartzen? ■

Kazetari emakumezko batek komentatu zidan aurrekoan, beren lanbideak prestigioa galtzarekin batera aldegin dutela gizonezkoek beste arlo batzuetara, eta beren tokia emakumei ‘utzi’

TXANDAN

Andoni Mujika

Sakratuak biak



Zoriona zein zoritxarra. Ez da txantxetakoa. Edozein errealitatetan

horiek biak jorrazteko eta kudeatzeko hartzen diren neurriak, edo hartzen ez direnak, ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Erakunde guztietako liderrek, salbuespenik barik, gai bi hauek –sakratuak baitira– beren plangintzen tokirik garaienean, dietarioen podiumetan, jaso beharko lituzkete. Horretarako, orientabide egokia izan daiteke bi kontzeptu hauek gogoan hartzea: errekonozimendua eta zaintza; bai pertsonari –banan banakoa– eta baita proiektuei ere.

Beste honetara ere formulatuko nuke: liderrak, bere taldearen duintasun guztiak jorrazteko behar dituzte, eta hori, ez da ohiko jokabidea, ez da gehiegitan ikusten. Nahitaezkoa da baina. Duintasun kontzeptuaren irakurketa praktikoa da nork bere burua bortxaketa modalitate orotatik defendatzea. Horretarako ardura zuzena duen liderrak behatu behar du arlo hau, baina duintasunaren azken zaindaria norbera dela ahaztu gabe. Berebiziko lan hau egoki egiteko, landare edo makina bat bagina legez, bete beharreko legeak –berezkoak– ezagutu eta zaindu egin behar dira. Eta hazkuntzarako zein garapenerako jarraitu beharreko pista garbiak dira. Ezagutu eta zaindu. ■